

Kronika

2020-09-26 Larunbata
7.245 zk. www.kronika.eus

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

141 positibo berri
10.208 positibo guztira*

1.898 hildako EAEn
UCIn EAEn

NAFARROAN

314 positibo berri
16.531 positibo guztira

564 hildako
26 UCIn Nafarroan

*HERNANIN 332 (+1), ASTIGARRAGAN 61 (0)

TOKIKOM

(Nafarroako Osasun Saila)



Zazpigarren txapela, edo estreinakoa?

HERNANI
ERREMONTEA

14



Sagar urte zaila aurtengoa, uzta txikiarekin

URUMEA
SAGAR UZTA

12-13



«Berlingo Bienalean egotea nire lanaren errekonozimendua da, nazioartean»

HERNANI
AZUCENA VIEITES

2-3

Misterioz beteak, Mandoegiko parajeak

Ezpondako zuloa, Tomas Arribillaga apaizaren hilketa, mairubaratz eta trikuharriak... Kondaira, istorio eta oroitzapen ugari gordetzen dituzte tontorraren inguruko txokoek. Horiek lotzen dituen mendi buelta bat ere bada, Goizuetako ibilbide sarean. Argazkian, Abadegurutzeko tontorra, eta atzean Mandoegi.

8-10



Bardoak bertso txapelketa, Goizuetan

GOIZUETA
BERTSOLARITZA

7



Azkeneko hilaren atean, bailarako ziklistak sasoiko

URUMEA
TXIRRINDULARITZA

15



Leku-Eder, 100 urtez

Mendea bete du aurren, Florida-Etxeberri auzora bidean dagoen Leku-Eder etxeak. «Etxe erraldoia» bezala eza-gutu zuten hernaniarrek.

HERNANI
LEKU-EDER

11

'Schitt's Creek', ikustekoa

Hilabeteko gomendioak luza-tu ditu Aitor Caracciolo, gure Telesailtan adi(k)tuak; eta Emmy Sarietako irabazleei bistazo bat ematea proposatu du.

TELESAILTAN
ADI(K)TUA

16

IRUBIDE JATETXEA
Zure jatetxea, Epelen



Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

«Berlingo Bienalean egotea nire lanaren errekonozimendua da, nazioarte mailan»

Azucena Vieites artista hernaniarraren lanak, irailaren 5ean ireki eta azaroaren 1era arte zabalik egongo den erakusketan daude ikusgai. Bertan dagoen lehenengo artista euskalduna da.

HERNANI BERLINGO BIENALEA

Berlingo Bienalaren hamaikagarren edizioa irailaren 5ean ireki zen eta azaroaren 1era arte iraungo du. 50 artista baino gehiagoren panelean, Azucena Vieites hernaniarra (Hernani, 1967) ere izango da. Gainera, euskal artista batek Berlingo Bienalean parte hartzen duen lehenengo aldia da. «Hasiera batean ekainaren 13an zen inaugurazio ekitaldia, baina pandemiaren ondorioz atzeratu egin zen eta irailean ez zen inauguraziorik egin, irekiera baizik».

Jendeak online, internet bidez, txanda hartu behar izan zuen irekiera ekitaldian egoteko. «Edukiera mugatua zen» dio Azucena Vieitesek. Irekiera ekitaldia hasi aurretik muntai lana egiteko astebete lehenagotik bertan zegoen hernaniarra eta bertan egoteko protokoloak jarraitu behar izan zituen. «Alemanian PCR-a eskatzen dute sartzeko. Hemendik eman dezakezu gehienez 48 ordu aurretik eginda edo aireportuan bertan egin dezakezu. Bertan eginez gero konfinatu egin behar zara emaitza izan arte, hurrengo egunean. Bienalekoek biak egitea eskatu zidaten. Horrela ez nuen konfinatu beharrik eta muntaia egiteko arazorik ez nuen izan». Behin protokolo horiek beteta hunkitu egin zen irekiera egunean. «Nahiz eta arraroa suertatu».

«Berlingo Bienalean egotea nazioarte mailan nire lanaren errekonozimendua edukitzea da» azpimarratzen du artista hernaniarrak. Gero horrek zer suposatzen dezakeen ikusteko dagoela dio Vieitesek. «Momentuz niretzako oso garrantzitsua

da. Jende desberdinak nire lana ikusteko aukera izango du, galaristek, eta horrek ateak ireki ditzazke, aukera gehiago zabaldu daitezke. Ikusleho garrantzitsua izan daiteke».

Azucena Vieitesentzat opari hantzeko bat izan da bertan egotea. «Jendeak ez du maskarillarik erabiltzen leku irekietan, bai ordea leku itxietan edo garraio publikoan». Madrilera edo Donostiara itzuli denean biztanlegoaren dentsitate kopurua hemen askoz ere haundiagoa dela dio. «Ez bakarrik Madrilan, hemen ere bata bestearengandik askoz ere gertuago, pilatuago bizi gara».

«Bienaleko antolakuntza nirekin jarri zen kontaktuan»

Etxepare Euskal Institutuaren produkzio laguntzarekin, euskal sorkuntza garaikidearen nazioarteko proiektzioa bultzatzeaz eta euskal eszenaren eta nazioarteko testuinguruaren arteko loturak sendotzeaz arduratzen den erakundearekin, hartzen du parte bertan. Vieitesen lana Bienaleko talde kuratorialak aukeratu zuen eta Etxepareren babesa jaso zuen. Institutuko ordezkari bat Alemaniako hiriburuan izan zen irekiera ekitaldian eta Bienalaren lehen egunetan, artistarekin batera.

Bertan dagoen lehenengo artista euskalduna da. «Itziar Okariz eta Sergio Prego Veneziako Bienalean egon ziren pasa den urtean. Ibon Aranberri, seguru asko Chillidarekin batera, Kassel-go Dokumentan egon den bakarra da. Berlingo Bienalean egon den artista euskaldun bakarra naizela entzutea askotxo iruditzen zait».



Azucena Vieites artista hernaniarra Berlingo Bienalean ari da bere lanak erakusten.

«Garrantzitsua da bertan egotea, jende desberdinak lana ikusiko du eta horrek ateak ireki ditzazke»

Vieitesek, besteak beste, *Coloring Book*, *Fundido Encadenado* eta *Break Out of your Shell* proiektuen berrirakurketa edo remake prozesu batetik abiatzen den instalazio bat eraman du Berlinera eta azarora arte egongo da bertan. «Bienaleko antolakuntza nirekin jarri zen kontaktuan nire lanarekin interesatu zirelako. Madrilgo nire estudioa etorri ziren lana ikustera eta ni Berlinen egotea interesatzen zitzaizela adierazi zidaten. Lantzen ditudan gaiak

«Lantzen ditudan gaiak bienalekoekin bat egiten dute: feminismoa, generoa, ekologia, zaintzak...»

bienalekoekin bat zetozen: politika feministak, generoarekin lotutakoak, zaintzen ingurukoak, amatasuna, hezierak eta guzti honekin lotuta gai ekologikoak».

Coloring Book-en hurrek adierazteko eta munduari begiratzeko duten moduarekiko interesa aipatzen du; *Fundido Encadenado*-k antzezpeneren gaia jorratzen du, egunerokotasunaren alderdi ludiko eta fantastikotik; eta *Break Out of your Shell*-ek estetika subkultural

bati lotutako hizkuntzan eta fanzine feministak egiteko erabilitako *Do It Yourself* ekoizpen-moduetan sakontzen du, praktika artistikoaren eta edizioaren artean lan eginez.

Berlingo kW Arte Garaikideko institutuan dago ikusgai

Bere obra Berlingo kW Arte Garaikideko Institutuan dago ikusgai. Serigrafia, inprimaketa digitala eta collage formako emaitzek artistaren lanarekiko begirada berritzailea erakusten dute.

Marrazkiaren, collagearen eta jabetzearen etengabeko beregite bisuala erabiliz, Azucena Vieitesen lanak ezagutzeko narrazio eta ekoizpen ez-linealen adierazpen-gaitasuna aztertzen du. Bere lanak hausnarketa kritikoa egiten du gai hauei buruz: sorkuntza estetikoak beti tes-

Kronika

Larramendi 11, Hernani
 ☎ 943 33 08 99
 688 660 714

Lege gordailua:
 SS-1469/2018
 ISSN: 2659-5036

Eposta:
 kronika@kronika.eus,
 astigarraga@kronika.eus,
 urumea@kronika.eus eta
 publi@kronika.eus.
 www.kronika.eus

Lan-taldea:
 A. Arbelaitz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa, B. Los Arcos, J. Osa, M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:



Larramendi 11, Hernani
 ☎ 943 33 27 99
 Eposta: dobera@dobera.eus
 www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.


Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
 KRONIKALARIAK

TOKIKOM



tuinguru sozial eta ekonomiko jakin bati lotutako prozesu gisa hartzea, edo gaur egungo kultur irudikapen askotan irauten duen logika bitarra apurtzen lagunduko duten estrategia diskurtsiboak sortzeko beharra. Bere praktika artistikoan, Vieitesek beti izan du harreman estua aktibismo feministarekin eta queerrekin.

Azucena Vieitesen lanak harrera ona izan du kritikan. «Erasuketaren komisarioa kontatuan dago nirekin eta kritika desberdinen estekak bidaltzen dizkit. El Paiseko sekzio kulturalan Sonia Fernández Pan-ek eginkoa aipatuko nuke. Jatorri galiziarra du eta Berlinen bizi da. Oso ongi idazten du eta bertan bienalean plazaratzen diren gai batzuk itzuliezinak direla dio. Esaterako gai koloniala, gai feministak, generoari lotutako politikak artean, ekologia.. geratzeko etorri direla azpimarratzen du eta hori ezin dela aldatu».

Elkarrekin lanean ari diren bikote turkiar-alemaniar baten kritikak ilusio berezia egin zion Azucena Vieitesi. «Arte kritika bat idatzi zuten bi artista latinoamerikarrek eta baita nire lanarena ere. Horrelako berriak ilusio handia egiten dit».

Sari asko jasotakoak eta ibilbide luze eta arrakastatsua
Artista hernaniarrak Eusko Jaurlaritzaren Gure Artea Saria jaso zuen 2004an, Ibon Aranberri eta Iñaki Garmendia artistekin batera. Gaur egun, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko eta Salamancako Unibertsitateko Arte Ederretako fakultateetan irakasle elkartua da. 2019an *Low-fi Praktika* izeneko doktoretza tesia irakurri zuen. *Una aproximación al contexto vasco* (1985-2005).

Eskarmentua ez zaio falta hernaniarrari. Duela urte batzuk, 2013an, Reina Sofia museoan ere erakusketa bat eskaini baitzuen.

'Coloring Book', 'Fundido Encadenado' eta 'Break Out of your Shell' proiektuen berrirakurketa edo remake prozesu batetik abiatzen den instalazio bat eraman du eta azarora arte egongo da.

Berlingo 11. Bienala, Berlingo Arte Garaikideko Bienala, 1996an sortua, bi urtean behin antolatzen da Alemaniako hiriburuko hainbat gunetan, eta egutegiko hitzordu artistiko garrantzitsuetako bat bihurtu da. Bere helburu nagusia formatu esperimentalak sustatzea eta kurdoreei eta artistei espazioa eta askatasuna ematea da, artearen merkatutik eta bildumagileen interesetatik independenteak diren ideia eta proposamen garrantzitsuak aurkezteko.

Azken urteotan hainbat izen izan dira bertan. Besteak beste, Olafur Eliasson artista daniarra (gaur egun Guggenheim Museoan erakusketa bat du, *En la vida real* izenekoa), Fiona Tan artista indonesiarra (Koldo Mitxelenan erakutsi zuena) eta Rosa Barba italiarra (2018an Tabakaleran erakutsi zena).

Berlingo Arte Garaikidearen Bienala (BB gisa laburtua) Alemaniako Kultur Fundazio Federalak (Kulturstiftung des Bundes) antolatzen du bere laugarren ediziotik. 11. ediziorako, Hego Amerikako lau komisarioz osatutako lan taldea bildu du antolakuntzak. Eurek sortutako egitarauak urtebete iraun behar zuten, 2019ko irailetik hasita eta hainbat fase edo garaitan banatuta; baina COVID-19aren eraginez hainbat hilabetez geldirik egon da bienala. Egoera baretu dela dirudien honetan, irailaren 5etik azaroaren 1erakoa izango da edizio honen azken fasea, *Epilogo* izendatu dutena.

Etxepare Euskal Inститutuaren esfortzua ere eskertzen du marrazkigile hernaniarrak. «Bienaleko irekieran nirekin egon ziren eta baita prentsarentzako egunean. Imanol Otaegi, Kultura Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria, eta Irene Larraza, Etxepareko Zuzendaria, joan ziren Berlinera eta beraien babesa nabaritu nuen, oso ongi egon ginen elkarrekin. Benetan esker-tzen dut». **K**

«Sonia Fernández Pan arte adituak El Paisen egin duen kritikan dioen bezala gai kolonialak, feministak, ekologikoak, generoari lotutakoak... artean geratzeko etorri dira eta dagoeneko hori ezin da aldatu».



'Fundido Encadenado' lana Berlingo bienalean ikusi daiteke.

«Zuzenean ez, baina zeharka herrian egiten diren lanak jarraitzen ditut»

Gogo du Hernanira etortzeko, «aspaldi hontan ez naiz joan nahiz eta Donostia askotan bisitatu, ama orain bertan bizi baita».

HERNANI BERLINGO BIENALEA

Aspaldi honetan Azucena Vieites Madrilen bizi da nahiz eta Euskal Herrira askotan etorri. «Ama orain Donostian bizi da, anaia Astigarragan, Hernanin lagunak ditut... hala ere denbora da Hernanira hurbildu ez naizela. Gogo daukat herrira joateko».

Hernaniko artistekin lotura baino gehiago, Hernanin egin diren lan batzuen egileekin dago kontaktuan, «ez horrenbeste artista hernaniarrekin. Sra Polaroska osatzen duten Alaitz Arenaza eta Maria Ibarretxek Hernaniri buruz egin zuten *Andrekale* filma ezagutzen dut eta Tabakaleran egon zen ikusgai. Kardaberaz kalean (Andre kalen) herriko emakumeak bildu zituzten».

Vieitesek kontaktua izan du Arenaza eta Ibarretxekin. «Kulturako eta artearen munduko jendearekin izaten da erlazioa, baina egia esan gero eta gutxiago. Herrikan kanpora bizitzeak ekartzen du hori. Hala ere, badago artistaren bat, aktiboki lanean ari dena artearen inguruan, eta berarekin badut erlazioa. Gero ere gertatzen da artista asko esparrutik kanpo beste lanetan dabilzanak tamalez. Eta Hernanin horietakoak ere badaude».

Andre kalea inauguratzeaz gain, emakumeen irudia eta presentzia sinbolikoa alda-

rrikatzeko proiektua bultzatu zuen duela lau urte Hernaniko Kalandria taldeak, Komanditario Berriak egitasmoaren barruan. Vieitesek gertutik jarraitu zuen lantegi guzti hori. «Kalean ekitaldia egin zuten eta izenaren jatorrira bueltatu ziren. Emakumeari bere lekua eskainiz eta beraien papera aldarrikatuz. Lan oso interesgarria».

Hura zer izan zen gogoratzea ez dago gaizki. Ekhiñe, Kandela eta Pantxaren kon-daira ezagutzea eman, hiru pertsonaien eta emakumeen omenezko plaka jarri, eta emakume hernaniarrekin egindako ikus-entzunezkoa aurkeztu zen.

Andre kaleko egitasmoak ere genero ikuspegia lantzen du, Vieites eta hainbat artistak egin duten bezala

«Gizartetik sortutako artea bultzatzeko plataforma da Komanditario Berriak» Hernaniko Kalandria taldeak azaldu bezala. Duela 25 urte sortu zen kontzeptua Frantzian, eta Euskal Herrian, Artehasia Elkar-teak sustatzen du programak. Hernaniren kasuan, Tabakalerak hartu zuen parte egitasmoan; 2014an, Kalandria taldea sortu zen Hernanin, eta Haizea Barcenilla arte bitartekariarekin hasi zen lanean, Andre kalea izena abiapuntu hartuta. «Kale izen zehatz horren aldarrikapena egi-

teaz gain, hiri edo herrietako leku izenak hautatzerakoan erabiltzen diren irizpideak aztertu nahi ziren, generoaren ikuspegitik, eta era berean, emakumeen ikusgarritasun eza salatu».

Hausnarketa hori guztia kontuan hartuta, Kalandria taldeak eskatu zuen arte-lan bat, Hernanin eta beste testuinguruetan erabili daitekeena, eta «espazioan aztarna, marka bat uzten duena». Kalandriak, horretarako, Alaitz Arenaza eta maria Ibarretxe proposatu zituen. Bertan, Hernaniko 200dik gora emakumek hartu zuten parte grabazioan, eta ahozko-tasunean oinarrituta asmatu diren hiru pertsonaia tiporen historia berria kontatu zuten, mitologia berri bat: Ekhiñe, Kandela eta Pantxa.

Itziar Okarizen lagun mina da artista hernaniarra. «Okariz oso interesaturik dago ahozko komunikazioan, irrintzietan, folkloean, espresio kulturaletan, bertsoetan... performance desberdinak egiten ditu. Irrintzia hartzen du testuingurutik ateratzeko asmoz, esperimendazio akustikotik abiatuta zerbait berria sortzeko, eta bestetik badakit oso interesaturik dagoela Maialen Lujanbioren ibilbidearekin. Agian zuzenean ez, baina zeharka artista hernaniarrekin eta Hernanin egiten diren gauzak jarraitzen ditut».

XXXVII. BURUZ BURUKO ERREMONTE TXAPELKETA KUTXABANK SARI NAGUSIA 2020

Hernaniarrek
NAN-a erakutsita

10€

*Hernani,
erremontearren babesle*

FINALA

Irailak 26, larunbata

Galarreta Jai-alai pilotalekua | 15:15



URRIZA

ENDIKA

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.

GIPUZKOA
TURISMOA

DV

ORIA
MENDI



Orona
Fundazioa

Pelotadenda.com

PAPELERA GUIPUZCOANA
DE ZICUÑAGA, S.A.U.

utr

Tratu onen (g)unearen aurkezpena

Joan zen udaberritik aldaketa garaian bizi gara. Uneoro, aldatzen doazen baldintza eta agertoki ezberdinetara egokitzen ari gara.

Gainera, atzean gelditu dira lehen bizitzan aurrera egiteko genituen baliabide asko eta asko: lan baldintza egokiagoak, edo gure gertuko besarkadak gozatzea, besteak beste.

Horregatik, komeni da guk ez ahaztea garai hauetan ere bizitza bizigarriak merezi ditugula. Nola egin dezakegu harremanak osasuntsu eta gozagarriak izaten jarrai dezaten? Batzuk, laguntza behar dugu ohartzeko nola sentitzen garen elkarrengandik urrunduta, edo zer behar dugun itxaropenari eusteko.

Tratu Onen herria egitasmo-tik, bide honetan heldulekua

eman nahi dizuegu hernaniarre. Tratu Onen (g)unea deituriko kanpaina abiatu dugu. Kallean bertan, tresnak eta giroa eskainiko dizkizuegu, bakoitzak unetxo bat izan dezan hausnartzeko. Zer behar da harremanak gozagarriagoak izateko nire etxean, lanean, lagunartean? Zer eskaini dezaket nik, zertan naiz abila? Zertan behar-ko nuke nik laguntza gehiago? Zerk sortzen dit egonezina? Zerk patxada? Noiz sentitzen dut norbaiti axola natzaiola? Zein da hurrengo urratsa, ziurgabetasun aro honetan, zaintzak eta Tratu Onak erdigunean egon daitezen gure herrian?

Gune ibiltaria izango da. Datozen asteetan herriko toki ezberdinetan aurkituko gaituzue:

// Urriaren 8an azokan egongo gara, 12:30etatik 14:30etara.

// Urriaren 9an Plaza Berrin, 10:00etatik 13:00etara.

// Urriaren 14ean Ereñotzun, 17:00etatik 19:00etara.

// Eta urriaren 16an, ostirala, Tilosetan 17:00etatik 19:00etara.

Horietarako, ez da izen-ematerik behar, gerturatu eta bertan aurkituko gaituzue; segurtasun neurri guztiak bermatuta, noski. **K**

EROTIKAN PLAX!

TESTIGANTZAK



Bikote irekiak

Lekukotza: Karmele, 41 urte

Bikotekidearekin harreman luzea bizitzen den bitartean, beste pertsonenganako erakargarratasunari lekua egiteko desioa sortu daiteke.

Hau behar bezala kudeatzeko, ez dugu hezkuntzarik jaso, zentzu komunak ez digu erantzuten eta estrategiak martxan jartzeko mila zantzak izan ditzakegu. Gainera, epaituak eta ez ulertuak izateko beldurrak gaizki sentiarazi gaitzake.

«Niretzako aspaldi izan zen zeren gauza asko gertatu dira ordutik. Bikote irekiaren kontua hitz egiteko... zergatik plax zerbitzura joan?»

«Kontua izan zen heziketarik nahi edo nahi ez izan – eta hori ni nahiko pertsona irekia kontsideratzen naizela- ba heziketak azkenean laukitu egiten gaituela, eta lauki horretatik ateratzen garen bakoitzean, ba zenbait erabaki hartzea gogorra egiten da edo zaila.»

«Eta sexologok... zuk daukazun 'pajada mental hori' normala dela, logikoa dela, eta ikuspuntu lasai bat eskaintzen dizunean, ba askoz hobeto sentiarazten zaitu, eta erabakiak ere hartzen dira modu lasaiago eta goxoago batean. Neri horretarako lagundu zidan bereziki. Nere

buruarekin ondo sentitzeko, buruan neukan, geneukan, ideia aurrera eramateko, eta bai, egin genuen, eta zerbitzuan emandako (esango dugu 'aholkua') martxan jarri nituen, genituen, eta adibidez, ni inoiz ez nintzateke animatuko hasiera batean *Tinder* edo *Meetic* edo horrelako lekuren batean sartzera. Plaxen 'gomendioarengatik' nere bikotekidea sartu zen bere momentuan, ondoren ni sartu nintzen, eta gaur egun pertsona oso garrantzitsu bat ezagutu det *Tinder*ren eta berarekin nago».

«Beste modu batetara ez nuke aurkituko. Besteak beste, herri ezberdin, unibertso ezberdin, eta itxuraz oso ezberdinak garelako, nahiz eta gero balioetan eta mila istoriotan berdin-berdinak izan. Orduan, eskerrik asko. Oraintxe bertan 'gomendioak' izugarritzko onurak ekarri dizkidalako».

Korapiloa askatzeko laguntza behar izaten da askotan. Norbere buruari aitortza egiteko, konfidentzialtasun osoz. Ondoren, bakoitzak baloratuko du zein bide hartu, zein pausu eman, noiz eta nola.

PLAX! Hernaniko sexu eta bikote aholkularitza doakoa eta konfidentziala da. Osasun zerbitzuen osagarria. Covid19a dela eta, zerbitzua telematikoki ematen ari gara momentu honetan. Hitzordua egiteko: **656544606** (deitu edo bidali whatsapp bat), www.hernani.eus/sexu eta [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani).

INDARKERIA MATXISTA jasaten ari bazara, DEITU eta lagunduko dizugu:

943 557 854 (8:00-14:00 Hernaniko Zerbitzu Sozialak)

900 840 111 (24 ordu, ez da deia erregistratua geratzen)

"Merezi dugu indarkeriarik gabe bizitzea" gidak deskargatzeko aukera hainbat hizkuntzatan hemen: <https://www.hernani.eus/eu/indarkeria-matxista#gida>





Hernaniko ostalariak kazerolada egin zuten, Eusko Jaurlearitza irtenbidea eskatzeko.

Berriak merkataritza elkarteak bat egingo du, gaurko ostalarien protestara

Ostalariak Konstituzio plazatik abiatuko dira gaur 19:30etan, eta Kursalean amaituko dute agerraldia, «irtenbidea eskatzeko».

URUMEA SOS OSTALARITZA

Koronabirusak eragindako pandemiak ondorio latzak utzi ditu ostalaritzako sektorean. Segurtasun eta higie neurriak betetzeko asmotan eta egoerak hala behartuta, ostalariak «neurri murriztaileak betetzera behartu dituzte». Horregatik, azken honetan kalera atera dira, Eusko Jaurlearitza «irtenbidea» eskatzeko.

Gaur protesta egingo dute Donostian, eta Berriak merkataritza elkarteak bat egingo du, «ostalaritza borrokan dagoela azpimarratzeko, eta irtenbidea behar dituztela jakinarazteko». Izan ere, pandemia hasi zetik ostalaritza sektoreak zenbait erakundek ezarritako neurri murriztaileak jasaten ari dela diote, eta «ez dirudi epe motzera edo ertainera neurri horiek ezabatuko dituztenik».

Pasa den abuztuaren 17an ostalaritzaren sektoreari eragiten zioten neurri murriztaileak jarri ziren indarrean, eta aurretik ere beste hainbat zeuden ezarrita, tabernari eta ostalari guztiek hala betetzeko. «Neurri horien guztien aurrean, sektoreak gero eta askatasun gutxiago du lan egiteko, eta itolarria haundia izaten hasi da», adierazi dute Berriak elkarteak.

Horregatik, gaur Donostian egingo dute protesta, lurraldeko ostalariak. Konstituzio Plazatik abiatuko da 19:30etan, eta Kursalean amaituko da, «Zinemaldiarekin kointzidituz». **K**

Udalak energia elektrikoa hornitzeko kontratua sinatu zuen, Goienerrekin

Udalak bi urteko kontratua sinatu zuen asteazkenean, beste 2 urte luzatzeko aukerarekin, Goiener S.Coop. enpresarekin.

ASTIGARRAGA UDALA

Joan den asteazkenean sinatu zuen Udalak energia elektrikoa hornitzeko kontratua, Goiener enpresarekin. Energia %100 berriztagarria sortu eta bazkideen artean merkaturatzen duen irabazi asmorik gabeko kooperatiba herritarra da, eta esleipen prozesuan kooperati-

ba honek puntuaziorik altuena lortu du hiru loteetan: argiteria publikoan, udal ekipamenduetan eta udalaren etxebizitzetan. Lehen lotea (argiteria publikoa) 84.767,33 eurotan esleitu da. Bigarrena (udal ekipamenduak) 41.410,25 eurotan, eta hirugarrena (udalaren etxebizitzak) 9.764,59 eurotan.

Jakitera eman dutenez, Udala

«oso pozik» agertu da hurrengo urteetan behar izango duen energiak jatorri berriztagarria izango duelako. Izan ere, energia berriztagarriek, ingurumenean erregai fosilek edo energia nuklearrak baino inpaktu txikiagoa izateaz gain, autohornikuntzan laguntzen dute, eta, beraz, lurralde baten mendekotasun energetikoa murrizten dute.

Udalak eredu jasangarriago bat lortu nahi du eta bide horretan, «pauzu garrantzitsua» izan da Goiener enpresarekin sinatutako kontratua. **K**

Auzo batzarra gaur, Ereñotzuko frontoian

EREÑOTZU AUZO BATZARRA

Futbol zelai inguruaren eraberritzearen gaia landuko dute gaurko auzo batzarrean, goizeko 10:30etan.

Ikastaroetako izen-ematea, etzi arte

HERNANI IKASTAROKAK

Kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epea astelehenean amaituko da, eta aukera zabala eskaini dute aurtengo ikasturterako.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† PAKITA SALABERRIA LEIZAOLA

(Joxe Aranbururen alarguna)

Atzo hil zen, 97 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -



Seme-alabak: Pilar (†) eta Norberto Uranga (†), Maria Jesus eta Paco Bueno, Mari Carmen eta Benito Errazkin eta Isidro (†) eta Isabel Lamy; bilobak: Shanti, Asier eta Karmele, Itxaso eta Gurutz, Gorka eta Zalaoa, Lorena, Ane, Aitziber, Joseba eta Elena, eta Jon Ander; birlobak: Eneko, Liam, Enara eta Sean; etxeko lehengusua: Margari Montero; ezkon ahizpa: Milagros Garcia; zaintzailea: Victoria; ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko irailaren 26an

Helbidea: Kardaberaz kalea

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHOZKETA TANATORIOAN egongo da gaur goizez 10:00-13:00 eta arratsaldez 16:30-18:00.

I. URTEURRENA

Maria Oa Imaz

2019ko irailaren 14an hil zen Hernanin, 106 urterekin, elizakoak eta aita santuaren bedeinkapena hartu ondoren

- Goian bego -

ETXEKOAK



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte **BIHAR, IGANDEA**, eguerdiko **HAMABIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko irailaren 26an


XVIII. URTEURRENA


Miguel Larreta Amondarain

2002ko irailaren 24an hil zen

Miguel, 18 urte joan zirela, zu gure artetik. Orain begira zaude, zeru ederretik. Alaitasuna zendun guztien gainetik. Muxu haundi bat denon partetik.

Urteurreneko meza, **BIHAR, IGANDEA**, goizeko 10:00etan, Ereñotzuko **SAN ANTONIO** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.







**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

Bardoak bertsolari txapelketako finalaurreko bat, Goizuetan

Ostiralean jokatu da txapelketako finalaurrekotako bat, Udaletxeko ganbaran; sarrerak salgai daude.

GOIZUETA BERTSOLARITZA

Ia 7 hilabeteko etenaren ostean, datorren ostiralean berrabiaraziko da Bardoak 2020, Nafarroako taldekako bertsolari txapelketa. Bi finalaurreko eta finala jokatzeaz zirela eten zen txapelketa martxoan, COVID-19aren pandemiaren eraginez. Orain, etenaldi luze honen ondoren, ostegunean, urriaren 2an, jokatuko dira bi finalaurrekoak, Goizuetan eta Jaunsaratsen. Finala urriaren 17an izango da, Lizarran.

Nafarroako Bertsotzale Elkarreak, tokiko antolatzaileekin batera, konpromisoa hartu du pandemia egoerak eskatzen dituen segurtasun eta prebentzio neurri guztiak betetzeko. «Gauzak horrela, afoarak mugatu egingen dira, segurtasun tarreak man-



Finalaurrekoetako 2garren asteburuko bertsolariak, Bardoak txapelketan.

tenduko dira, aretoetara sartzeko eskuak garbitu beharko dira, eta musukoa ezinbestekoa izanen da, saio guztien zehar».

Goizuetako osteguneko saioa Lesakako Arranopola eta Malerreka-Baztango Bertsonautak taldeen artean jokatuko da. Bertan erabakiko da bi taldeetako nor eskuratzeko duen finalerako pasea.

Sarrerak salgai, 3 euroan

Goizuetako Udaletxeko ganbaran jokatuko da Bardoak 2020 Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketako finalaurreko bat, eta

sarrerak salgai daude 3 euroan, estankotan. Basaburuako saioan, ordea, egunean bertan izanen dira sarrerak salgai, aretoan bertan. Bi kasuetan, 3 euroko salneurria izanen du sarrerak.

Txapelketako finala, aldiz, urriaren 17an izanen da, Lizarrako Ikastolan. Finalerako sarrerak aurrez salduko dira, irailaren 28tik aurrera, Ikastolan bertan, eta baita www.bertsosarrerak.eus atarian ere. Saldu gabe geldituko balira, finalaren egunean bertan ere jarriko lirakeke salgai, 15:30etatik aurrera, leihatilan. **K**



Sagardoa salgai dago, Otsua-Enean.

Agur eskertua, datorren txotx-a arte

HERNANI PUBLIERREPORTAJEA

Otsua-Enea sagardotegiak bere atea itxiko ditu igande honetan, datorren denboraldi-

ra arte. Eta horrekin, bertakoez eskerrak eman nahi izan dizkiete hilabete hauetan sagardotegira joan direnei, udara gogorra izana baita Otsua-Eneakoentzat. Ximonen galerak hutsune haundia utzi zuen etxean, sagardotegiko gidari eta oinarri garrantzitsuenetako bat zelako. Hala ere, bertaratu diren guztien babsa sentitu dute Otsua-Enean, eta esker hitzak besterik ez dituzte haientzat.

Aurtengo udaran berrikuntzak izan ditu sagardotegiak, eta bertaratu diren herritar guztiek ederki gozatu dute parrilan egindako eskaintza berriekin, eta baita betiko sagardotegi menuarekin ere. Legatza eta xapoa dastatu dituzte gehienbat, baina enkar-guz edozein arrai eskatzeko aukera ere izan dute bezeroek, gero parrilan goxo jateko. Eta noski, terraza haunditzea izan da aurtengo berrikuntza nagusietako bat.

Txotx garaian berriro irekiko dituzte atea, egoerak eskatzen duen prebentzio eta segurtasun neurri guztiekin. Bitartean, nahi duen edonorentzat sagardoa salgai dago oraindik, eta sagardotegian bertan eskura daiteke.

Googleren 5.000 dolarreko dirulaguntza jasoko du Kronikak, tokiko hedabideei laguntzeko funtsetik

COVID-19aren pandemia hasi zenetik, tokiko hedabideek bete duten «funtsezko funtzioa» nabarmendu du Googlek. Horregatik jarri zuen martxan JERF funtsa, eta mundu osoko 12.000 hedabide bano gehiagok egin dute eskaera.

URUMEA KRONIKA

Googleren dirulaguntza jasoko du Kronikak, tokiko hedabideei COVID-19aren aurrean laguntzeko sortu duen funtsetik: Journalism Emergency Relief Fund (Kazetaritzari Laguntzeko Emergentziafuntza). 5.000 dolar estatubatuar jasoko ditu Kronikak; 4.248 euro, hain justu.

Googlek nabarmendu du, tokiko hedabideek «funtsezko funtzioa» betetzen dutela, momentu onetan «komunitateak konektatuta mantentzeko»; eta funtzio hori «are garrantzitsuagoa» izan dela, COVID-19aren pandemia hasi zenetik, «lokal, eskola zein parkeen itxieren berri emanez, etxean geratzeko aginduak helaraziz herritarrei...».

Hori horrela, pandemiak eragindako krisiaren eraginari aurre egiteko, eta tokiko hedabideen garrantzia aitortzeko, Kazetaritzari Laguntzeko Emergentziafuntza sortu zuen Googlek, Google News Initiative proiektuaren bitartez; kalitatezko kazetaritza babesteko proiektua da. Apirilean sortu zuen funtsa Googlek, eta mundu osoko tokiko hedabideei zabaldu zien deialdia, dirulaguntza eskaerak egiteko. Aktualitatezko tokiko gaiak lantzen dituzten hedabideek egin zezaketen eskaera, betiere «informazio originala» sortzen ari direnak, bi eta 100 kazetari artean bazituzten, eta gutxienez urtebeteko esperientzia bazuen hedabideak.



Kronikako langileak, bulegoan lanean.

Tokiko 12.000 hedabide bano gehiagok, eskaera

Guztira, mundu osoko 12.000 tokiko hedabide bano gehiagok egin zuten dirulaguntza eskaera, 100 herrialde bano gehiagotakoak. Eskaera egin zuen Kronikak ere, eta 5.000 dolarreko dirulaguntza aitortu dio konpainiak. Egun hauetan sinatu dute dirulaguntza hitzarme-

na, bi aldeek. Euskerazko beste hainbat hedabide ere jasoko dute Googlen laguntza, izan lurralde mailakoak edo tokikoak.

Pandemia hasi zenetik, eguneroko argitalpenari eutsi dio Kronikak, herritarrek eguneroko informatuta egoteko, etengabe aldatu den egoera baten aurrean. Horrek suposatu du, Kronikaren kostuak mantendu

egin direla; ez ordea diru sarre-rak. Izan ere, alarma egoeran itxita egon ziren komertzio, enpresa eta zerbitzuen krisialdiak, zuzenean eragin zion Kronikari ere, publizitatearen fakturazioa ia erdira murriztuz. Hori guztia izan du kontuan Googlek, Kronikari dirulaguntza emateko.

Googlek aipatutako «funtsezko funtzio» hori, audientzia datuek ere erakutsi dute, Kronikaren kasuan. Izan ere, nabarmen egin dute gora kronika.eus webgunean bisitariak eta bisita kopuruak. Pandemiaren aurreneko bi hilabeteetan, bereziki nabarmena izan zen igoera: %92 haunditu zen kronika.eus webgunearen bisita kopurua martxoan (63.983 bisita guztira), iaz baino 9.406 bisitari gehiagorekin; eta %77 areagotu ziren bisitak apirilean (62.624 bisita guztira), 10.112 bisitari gehiagorekin.

Gorako joerari eutsi dio ordu-tik, eta abuztuan, %37 haunditu da bisita kopurua, iazkoaren aldean. Bisitariak 2019ko abuztuan baino %26 gehiago izan dira. **K**

Goizuetan trumoiak jotzen duenean, Ezponda bere zuloan mugitu den seinale omen...

Kondairak dio, bazela Ezponda izeneko gizon gaizto bat Goizuetan, eta hil ondorenean ere, bere arima agertzen zela, bere zaldiaren ferra-hotsaren soinuaren bitartez. Konjuroa egin, eta garai batean meategi izandako zulo batean sartu zuten, Mandoegi inguruan. Handik gertu izan zen Tomas Arribillaga apaizaren hilketa ere, oraindik argitu gabe dagoena. Bada ibilbide bat, paraje eder bezain misteriotsu horietan barrena.

GOIZUETA MANDOEGI

Historiaz, istorioz eta kondairaz betetako tokiak dira mendiak. Eta horrelakorik ez dute falta, Urumea bailarakoek ere; zeresanik ez Mandoegiko tontorren inguruetan. Handik gertu, Goizuetak Elduaien eta Berastegirekin muga egiten duen tokiaren ondoan, dago Ezpondako Zuloa, kondairaren arabera gizon gaizto baten arima gordezten duena; eta inguru haietan gertatu zen Tomas Arribillaga apaizaren hilketa ere, misterio bat izaten jarraitzen duena. Beherago daude Añoneako eta Errekalekuko mairubaratz eta trikuharriak ere.

Bada ibilbide bat horiek guztiak lotzen dituen, Goizuetako Udalak bere ibilbide sarean jasotakoa. Marka hori eta urdinekin seinalizatuta, Goizuetatik Mandoegira igotzen da Alkasoaldea auzotik, eta zuzenago jaitsi beste aldetik, Tartazutik pasata. 15 kilometro inguruko ibilbidea da, eta desnibel handi xamarra pilatzen duena, ia 900 metro gorantz, Mandoegiko tontorrera (1.045 metro) igotzeko.



Olaberriko olaren aztarnak ikusi daitezke, ibilbidearen hasieran.

Ezponda mugitzen ez denean joatea, hobe

Goizuetako Plazatik bertatik abiatzen da, eta han bertan bada kartel bat, udaletxearen ondoan, ibilbidea deskribatzen duena. Zubi handia zeharkatu, eta eskuinaldera hartu behar da, hilerriaren eta Olaberriko ola zaharren aznaren ondok pasata. Ola horretan egiten zituzten, garai batean, Espainiako Armadaren itsasontzien kroskoak babesteko kobre xaflak.

Bertan hartuko dugu mendi bidea, Alkasoaldea auzora bi-

Ibilbidean ikusi daitezke Añoneako trikuharria, 5.000 urte inguru dituen; eta Errekalekuko mairubaratzak, Euskal Herriko multzo garrantzitsuenetakoa osatzen dutenak.



Garai batean meategia zen zulotik kanpoaldera begira izango da Ezponda, bere kondena betetzeko zain.

dean; eta bertan hasiko gara aldapa gora, ia etengabea izango dena Mandoegiko tontorreraino. Haritz baso zein pinudietan barrena egiten du gora bideak aurrea, eta bizkarrez bizkar dijoa gero, parajeaz gozatzeko aukera ematen duten ingurune irekietan; are eta gehiago egun argi eta eguzkitsuetan. Beraz, horretarako, Ezponda mugitzen ez denean joatea komeni; ekaitzak jotzen ez duenean, eta lainorik ez denean, alegia.

Trikuharri eta mairubaratzak, Añonean eta Errekalekun

Goizuetan eta Aranoren arteko mugara gerturatzen garen heinean, ikusiko ditugu aurreneko monumentu megalitikoak, inguru hauetan oso ugariak. Basi-lioren borda pasa eta berehala, esaterako, ageri da Añoneako trikuharria, 5.000 urte ingururen ondoren oraindik ere ondo mantenduta dagoena. Lurperatze kolektiboak egiteko erakitzen zituzten horiek. Añonen ibilbidetik atera eta eskuinaldera igotzen den bidea hartuta, Urgaratako gainera iritsi daiteke, eta bertan ere bada zer ikusia: makina bat mairubaratz daude bertan. Harriekin lurrean osatutako zirkuluak dira mairubaratzak, hildakoen errautsak gordetzeko erabiltzen zituztenak.

Añoneara bueltatuta, eta ibilbideari jarraituz, Errekalekuko lepoan ageri da beste mairubaratz multzo bat, Euskal Herriko garrantzitsuenetakoa. Diotenez, duela 2.600 urte eraiki zituzten horiek.

Errekalekutik gorantz zuzen eginda, Leuneta tontorrera igo daiteke, Arano eta Goizuetaren arteko muga-lerrotik hain justu. Tontorrean, Elduaienekin egiten dute muga bi herriek. Horiz eta urdinez markatutako ibilbideak, ordea, ezkerredera egiten du pixkanaka, aldapa leunagotik, Besabitik Leitzalarrera dijoan goiko bidearekin bat egiteko. Bide horrek eramango gaitu Ezpondako zuloa, eta Tomas Arribillaga apaiza hil zuten tokira, Abadegurutz tontorraren ondora, Mandoegira iritsi aurretik.

Garai bateko meategia, gizon gaiztoaren kartzela

Goiko bidea hartu eta gutxira iritsiko gara Illasoroko mugarriera, Goizuetan, Elduaien eta Berastegiren arteko mugara. Eta pixka bat aurrerago dago Ezpondako zuloa, baina ez bidearen ondoan, Goizuetan aldera ematen duen malkarrean baizik. Bidetik ez da erraz ikusten, baina nabari da meategietako harrien kolore berezia, baita urrutitik ere, adi begiratuz gero. Goiko bideak eskuinalderako joera hartu baino lehen, esaterako, aurrez aurre ikusi daitezke, bidea baino bost bat metro beherago. Ehiza postuak ere badira bertan, eta itxitura gaintzeko pasabideak ere bai. Bidexka batek eramaten du Ezpondako zuloa.

Meategi zaharreko aurreneko harriak ikusi ondoren, metro batzuk aurrera eginda aurkituko dugu zuloa. Goiko aldetik begiratuta, landarediak

hartutako zulo handi bat da, bost metro inguruko zabalera eta 30 bat metroko luzera daukana. Ezkerrealdetik inguratzen hasita, ordea, ate moduko bat dauka zuloak, eta bertatik sartuta, ikusiko dugu kobazulo baten sarrera, zuloaren izkinetako batean. Bertan egongo da Ezpon-

Meategia zen garai batean, gaur egun Ezpondako zuloa bezala ezagutzen denez. Bertan sartu omen zuten, konjuroa eginda, Goizuetako gizon gaizto baten arima, Peroeneako Ezpondarena.

daren arima preso, oraindik ere, kondairaren arabera.

XIX. mendeko kontua da, eta Goizuetako Peroenea etxean jaiotako Ezponda goizuetarra da protagonista. Oso gizon gaiztoa eta aberatsa omen zen, herriko agintaria, eta zaldi zuri baten gainean ibiltzen zen. Herritar guztiak ziren haren beldur. Hil zen gizon gaiztoa, baina bere arimak presente jarraitzen omen zuen, tarteka bere zaldiaren ferra-hotsaren bitartez agertzen baitzen. Laino ilun batean ezkutatuta ibiltzen omen ziren zaldia eta zalduna, ezkutatuta.

Horregatik, konjurua egin zion Goizuetako apaizak: gurutzea hartuta, eraman zuten laino beltz hura Mandoegiko zulo hartara. Zuloaren aurrean, anega laurden bat liho-hazi hartu, eta zuloan bete beharreko kondena bota zion: «ale adina urterako!». Eta Ezpondak erantzun, «nik horiek ere beteko!».

Ordutik zuloan omen dago Ezpondaren arima, eta Goizuetan, ekaitzak jotzen duenean, hala esaten dute gaur egun ere: «Hara! Ezponda mugitu duk orain ere!».

Hala jasotzen dute kontakizuna, Gertrudis Zubillagak eta Ceferino Etxegiak kontatu bezala, Juan Jose Zubiri eta Patziku Perurenaren Goizueta eta Aranoko hizkerak eta Juan Garmendiaren Beti ortodoxoak ez diren konjuruak liburuetan.

Tomas Arribillaga, Aranotik Leitzara bidean hil zuten apaiza

Ezpondako zuloatik bide nagusira bueltatu, eta berehala iritsiko gara Baratzezarretako tontorrera (986 metro), XIX. mendeko beste gertaera baten ondorioz Abadegurutz edo Apaizengurutze izena ere hartu zuena. Izan ere, Aranotik Leitzarako bidean, tontorraren parean hil zuten Tomas Arribillaga Apezetxea leitzarra, Aranoko apaiza zena.

1779ko urriaren 27ko ilunabarrean gertatu zen hori. Menditik egin ohi zuen apaizak Leitzatik Aranorako bidea, zaldi gainean; eta egun hartan, labankadaka hil zuten. Hilketaren egileak eta motiboak, ordea, argitu gabe daude oraindik; baina badira hainbat azalpen eta kontakizun, gertatuaren inguruan. Horietako hiru dira, dirudienez, batzuen eta besteen kontaketatik indar gehien hartu zutenak, xehetasun batzuk gorabehera.

Horietako batek dio, karta



Urgarata gaineko mairubarretetako bat, Mandoegi, Abadegurutz eta Leuneta atzean dituela. Multzo handia ikusi daiteke bertan, Añonean ibilbidetik pixka bat aterata.

jokoan irabazi zituen diruak berreskuratzeko asmoz hil zuela galtzaileak, eta Aranoko bizargina aipatzen dute egile bezala. Bigarren teoriaren arabera, kartetan ez, apaiza pilotan abila zela eta apustua jokatu zuela aipatzen da. Partidua berak irabazi, eta galtzaileak dirua kentzeko asmoz hil omen zuen. Eta hirugarrenak dio, neska bat haurdun utzi zuela apaizak, eta neskaren familiak hil zuela. Aranoko neska bat zela diote batzuek, Elduaiengoa besteek; neskaren aitak hil zuela aipatzen da kontaketa batzuetan, eta aldiz, neskaren bi anaiak izan zirela besteetan.

Pilota apustuaren aukeran ere, bada kontakizun bat, Miel Ramon Zabaletarena, uztartzen dituen batzuek eta besteek

kontaketa, eta baita Ezpondako zuloa kondaira ere. Honela jaso zuten Juan Jose Zubirik eta Patziku Perurenak, Goizueta eta Aranoko hizkerak liburuan, hitzez hitz eta bere hizkeran, Zabaletaren kontaketa:

Pellotarie omen zen, Leitzeko semea. Nola da or elizatik bera-xeo etxe bat, Malexakenea esaten zaio, ta an yaihoa omen zen apez ori. Pillotari bizkorra omen zen, oso bizkorra! Aranoko barbero, gizon aundi bet omen zen, ta ark etxen omen zeuken pillotarie, gobernun artue. An, nonbattetik entetuko zien Leitzen bazegoa-la pellotarie ta, «apezik ez dok biñipiñ onei irabaziko dionik! Eta ze in omen due? Apustue yokatu. Apustue yokatu due ta, Aranoko barbero orrek, ze in omen do? Zittun diru guzik yokatu!

Asi omen die pellotan da, Leitzeko abadek aise irabazi partide! Pellotari ona izan bear zun oso, bizie ta azkarra. Gero, bazkaldu-te abittu omen die Leitzera mendiz, ordun ez baitzen ba komioik eta zaldiz ibiltzen omen zien; ta barbero orreri ze etorri zaio burure? Baita ill in bear dula leitzarra! Artu ditto aberek, launak izaan zittun, dudik eztena, ta or Urepelko ortan, Mugarri Urdiñe esaten dioan ortan, tiroz pasazak alajainkoa, abadea! Gero, etxera ba omen diztea, ta etxera baño len mendin «Erio» etorri omen zetzion iltzalle orreri: «Ai, ai, ai, Erio eldu zetziek!» eta lurrera gizona. Bestea il zun beño, bai berare. Barbero ori ikaragarrie emen zen gizona, ta gero bizkarren eraman bear launek! Artu emen due bizkarren da, ez

kargan fiurik sumatzen! Ez emen zun bate kargik! Ordun omen zen oittera, frantziskanoan abittue yatzekoa difunturi. Yantzi emen zioan frantziskanon abittue, baño, gaben sekuleko ikararin eotten omen zien Aranoko errindenak. Ala etzegoala ba bizitzeik, eta konjuratu eiñ bear ko zela. Nonbatte leizen bat billatu omen zuen, ta, alaxe ein omen zioan konjuroa. Apeza xarra emen zen bat, ta bestea gaztea, ta konjuroioan yarri omen die, ta abittu ori kendu bear gizonari, ta mutillek ikarari gorrin! Xarrak ekitten omen zion, beño gaztek esaten omen zion: «Irekikoak iñen netikek aixe, beño beste onek ikatzen neok». Ala, nolabatte kendu omen zioan, ta erreu liñazi bota omen zezkioan gañera: «Orik aña urteko!»; «Nik orik aise beteko!». Ma-



Atari polita dauka Ezpondako zuloak, ezkerreko aldetik inguratuz gero. Goitik ikusita, zulo handi bat da.



Landarediak hartuta egon arren, ikusten da Ezpondaren kobazuloaren sarrera.



Tomas Arribillaga apaizaren oroimenez, gurutzea jarri zuten, hil zuten tokian.



Baratzezarreta inguratzen duen bidean hil zuten apaiza. Hari eskainitako gurutzeak ematen dio izena orain, tontorrari.

jiñe bat liñazi izaan uen ba, beño «orik aixe beteko» esan omen zun, ta an sartue izaten omen da Aranoko barberoa. Ola kontatzen zuen lengo zarrak.

Edonola ere, hirugarren kontaktetari, neska bat haurdun utzi izanari, ematen diote indarra Zubirik eta Perurenak, liburuan. Izan ere, Iruñeako Eliz Barrutiko Artxiboan galdetu omen zuten beraiek, hilketa haren-gatik; eta Jose Luis Salesek, artxiboko arduradunak, hala bota zien: «badirudi gona kontuak izan zirela». Kasu horri buruzko eskuizkribua Bixente Hernandorena apaizak eraman zuen Orreagara; eta eskuizkribu horren laburpena eman zien Hernandorenak berak, lekukoetako baten testigantza barne. Bertan dio, lekukoa Juan Bautista de

Celaya Elduaiengo alkatearekin, Miguel de Lizarza zirujauarekin eta beste zenbaitekin joan zela Arribillaga hil zuten tokira, gorpua agertu zela jakin zutenean. Lurrean eserita aurkitu omen zuten apaizaren gorpua, begiak zabalik zituela. Zirujauak argitu zuen sei labankada jaso zituela sabelaldean, horietako hiru heriotza eragiteko modukoak. Hesteak agerian zituen, batzuk kanpora aterata ere bai, eta lau haragi puska lurrean, odol putzu baten ondoan. Gorpuaren alboan, kargatutako eskopeta bat omen zegoen, eta odolez zikindutako labana bat, hiltzaileak erabili zuena. Testigantza horretan nabarmentzen da, baita ere, eskuineko eskumuturrean erro-sario bat zeukala apaizak, eta ezkerrekoan, aldiz, soka batekin

lotuta egon izanaren markak.

Modu batera edo bestera gertatu, gurutzea jarri zuten Tomas Arribillagaren oroimenez, Baratzezarreta tontorra inguratzen duen bidean, hil zuten tokian hain justu. Horrela dio gurutzean dagoen plakak: «1779an hemen hil zuten Tomas Arribillaga Apezetxea apaiza, Leitzen 1739an jaioa. Goian bego». Apaizari eskainitako gurutze horrek eman zion tontorrari, gaur egun duen bigarren izena: Abadegurutz edo Apaizengurutze.

Mandoegi, ibilbideko punturik altuena

Apaiza hil zuten tokia atzean utzi, eta Mandoegi ingurura eramango gaitu bideak. Tontorra aurrez aurre daukagunean hartu beharko dugu ezkerreko bidea, gorantza egiten duena, ibilbideko punturik altuenera iristeko: 1.045 metro dauzka Mandoegik. Bertatik Goizueta ikusten ez den arren, inguruko parajeen panoramika zabala izango dugu, alde guztietara. Buzoi berezi bat ere ageri da tontorrean, Hernaniko Mendiriz Mendi elkarteak duela ia hiru hamarkada jarritakoa: burnizko pieza zirkularra da, barruan mendiko bi makil eta piolet bat dauzkana.

Mandoegiko tontorretik Goizuetara, jaitsiera zuzena egiten du ibilbideak, Zalkuko larreetan barrena. Inguru horietan, 600 ardi, 300 behi eta 60 behor inguru bazkatzen direla nabarmentzen du ibilbidearen deskribapenak, eta Goizuetan dagoen ingururik garrantzitsuen delabiltzaintzarako. Beherago, Tartazu auzotik, Domiña baserriaren ondok eta Samarreneatik pasatzen da bidea, herrigunera iritsi aurretik. Bidean aurkitutakoen berri gehiago jakin nahi duenak, beharbada aurkituko du inor Goizuetako Plazan, kontatzeko gogotsu... **K**

Apaiza nork eta zergatik hil zuen ez da argitu oraindik, baina badira hiru kontakizun nagusi: karta jokoan irabazi zuen dirua kentzeko hil zuela galtzaileak; pilota apustua jokatu eta partidua irabazita lortutakoa kentzeko izan zela; edo neska bat haurdun utzi zuela eta, neskaren familiak hil zuela.



Inguruko parajeen panoramika zabala eskaintzen du Mandoegik, tontorretik. Bertan dago Hernaniko Mendiriz Mendi elkarteak jarritako buzoia ere.



Leku-Eder etxea bere osotasunean.



Fatxadaren proiektua 1920an.

Leku-Eder etxeak, Floridan mende bat bete du 2020an

1920an eraiki zuen Pedro Armendarizek eta Miguel Antonio Setien izan zen arkitektoa. Lau pisu zituen proiektuak eta bat gehitu zitzaion.

HERNANI LEKU EDER

Ettxeberri auzora iristear gaudela, ezkerretara, ikusi daiteke Leku-Eder etxebizitza eraikina. Gaur egungo hernaniarrentzako betidanik, 100 urte betetzen baititu aurten eraikinak. Beraz mendeurrena bete du. Florida 69 zenbakia da bere helbidea eta bost pisuko etxe handia da. Hasierako proiektuak 101 urte ditu eta Pedro Armendarizek eraiki zuen. Etxebizitza partikularrak egiteko proiektua zen eta Miguel Antonio Setien arkitektoak idatzi zuen proiektua.

Hasierakoan lau pisutako etxebizitza zegoen idatzia, baina gaur egungo estruktura bost ditu. Posible da egin zenean bertan aurkeztutakoa baino altuagoa egitea. Geroztik aldaketa gutxi izan ditu eraikinak. «Obra txiki batzuei buruzkoak dira geroztiko espedienteak» dio Txuso Gomez, Udal Artxibotik. Ez dira aldaketa esanguratsuak, baina bai ordea hasierako espedienteak.

Etxebizitzak eraiki ziren lurra Ferrocarril San Sebastián-Hernanirenak ziren. Eta ordurako AMR Refractarios S.A. enpresa ondoan zegoen mar-

txan. Zeramika enpresa 1906. urtean, 14 urte aurretik zabaldu zen bertan, gaur egungo, Krosaki AMR Refractarios S.A.U. Aristegui familiaren enpresa zen, 1989ra arte bi konpainia japoniarrek erosi zuten arte.

Leku-Eder beti lantegi horren ondoan egon da kokatua, orain urte batzuk lekuz aldatu zen arte.

Orain bakartuago dago Leku-Eder Hernani aldera, baina ez Etxeberri auzo aldera eta Sagastiya baserri aldera.

«Eraikin erraldoia deitu zaio eta Persianas Uranga behelaldean»

Bizilagunek dioten bezala, «beti izan dira etxe partikularrak. Enpresan lanean egon ziren familiak bizi izan dira bertan, baina jende asko pasa da bertatik. Ez da ahaztu behar 20 etxebizitza ditugula eta bizilagun asko gara bertan. Bost pisu daude eta bakoitzean lau etxebizitzak osatzen dute. Eta horri gehitu 100 urteko historia, pentsa zenbat jende eta historia bizi izan dituen eraikin honek».

Florida auzoan oso ezaguna zen bere tamainu handiaren gatik. «Auzoan etxe-erraldoia

eta handia bezala ezagutu izan da. Blokeari erreparatzen badiogu, alde desberdinetatik, ikusi daiteke bere tamaina. Orain 100 urte oraindik eta deigarriagoa zen tamaina horretako eraikin bat». Beheko aldea orain lokal eta garaje bezala erabiltzen da, baina bere garaian Persianas Uranga zegoen kokatuta. «Uranga familia bertan bizi zen eta behean zuten pertsianen negozioa».

Etxearen izena eta eraiki zen dataren plakan ongi ez dira ikusten 'k' eta 'ñ' hizkiak hodi bat erditik igarotzen delako.

Hernaniko alkateak etxea erakitzeko baimena eman zuen 1920ko otsailaren 10ean

Hernaniko ordungo alkateak Pedro Armendarizi emandako baimena ere irakurri daiteke artxibategian. «Visto el informe de la primera División Técnica y Administrativa de Ferrocarriles; esta alcaldía ha acordado autorizar a usted la construcción de una casa de nueva planta en el kilómetro 9,800 de la línea de ferrocarril de San Sebastián a hernani con sujeción a las prescripciones generales de la ley y reglamento de Policía de ferrocarriles, pero imposición de servidumbre al ferrocarril. Dios guarde a usted muchos años. Hernani, 10 de Febrero de 1920. El Alcalde». K



Gaur egungo Leku-Ederren fatxada.



Eraiki zen urtea fatxadan ageri da.

«Aurrekoa sagar urtea izateak eta negu ezak, aurten sagar oso gutxi egotea suposatu du»

Zabaloenea baserrian, pasa den urtearekin alderatuta, sagar produkzioa ez da %30era iritsi eta «bataz bestekoa %85-90 gutxiago izatea posible da», Manuel Iradiren esanetan. «Sagarrondoak indarrrik gabe geratu dira».

HERNANI SAGARRA

Hernaniko Zabaloenea baserrian orain astebete amaitu zituzten, aurten azkar egin dute, sagar biltzeko lana. Normalean hiru asteetan zehar biltzen dira, baina aurten lau zapabost egunekin nahikoa izan da. Datuak ez dute engainatzen eta sagar ekoizleek sagarraren urritasuna nabaritu dute ikaragarri. «2020an sagar askoz gutxiago dago» dio Manuel Iradik.

Zabaloenean ia %70ean jaitsi da produkzioa 2020an, 2019arekin alderatuz. «Pasa den urtean sagar asko izan zen, eta gurean, aurten, iazkoarekin alderatuta ez da %30era iristen». Eta hori kopuru gehienetakoa duen ekoizlea izanik. «Inguruko beste ekoizle askorekin hitz egin dut eta gutxiago omen dute. Asko eta asko %10era ez dira iristen eta batzuk ia sagarrrik gabe ere daude. Bataz besteko %10-15a izan daiteke, hau da %85-90a gutxiago 2020rekin alderatuta. Nire produkzioa orkatuagoa dago». Mahairako sagarra ere badu eta hori nabari da.

Murritzeta horrek lana gutxitzea eta irabaziak jaitea suposatzen du. «Pentsa, nire sagar denak dagoeneko bildu ditut».

«Loraldia desorekatua izatea eragin du negu ezak»

Urritasun horren arrazoiak bi direla azpimarratzen du Iradik. «Aurrekoa sagar urtea izan zen eta sagarrondoak indarrrik gabe geratu dira, ahulduta geratzen dira. Hau da arrazoi nagusia. Sagarrak zuhaitzetik jaten du eta hurrengo urterako erreserbarik gabe geratzen da sagarrondoak, indar guttia sagarrean erabili eta gero. Lorea izateko ahulduta daude eta lorea baldin badu ere ez du hartzen. Bestetik negu eza ere izan da arrazoi».

Bigarren faktore hau ere garrantzitsua da Iradiren hitzetan. «Edozein frutondok geldialdia behar du, geldialdi begetatiboak. Geldialdi horrekin gero batera eta indartsu-osasuntsu etortzen da lorea, horren faltan loraldia oso desberdina da; agian hilabete eta erdin lorea ematen du hasieran behean, er-



Zabaloenean aurten sagar gutxiago bildu dute kixki eta sarearekin.

dian batere ez eta goran zeozer. Horri loraldi desorekatua esaten zaio. Hotza faltagatik gertatzen da desoreka. Lorea dena batera etortzea da egokia».

Sagastiak urte batean asko eta hurrengoan oso gutxi ez emateko oreka edo ekilibrioa bilatu behar da. Horretarako «kimatu egin behar da zuhaitza eta bakanketa egin».

«Alea txikiagoa da denboraldia lehorra izan delako»

Iradiren esanetan «urte leho-

rra izateak ere eragina du sagarrean. Alea txikiagoa izaten da eta noski horrek eragina du kilo faltan. Urtea lehorra izan da, ez litrotan baina hilabete konkretu batean egin du eta sakabana tuago egin behar zuen. Hostorik ez duenean ez du xurgatzen eta orduan ez da beharrezkoa. Gero hilabete luzeak egon dira apenas euririk gabe eta lurrarentzako eta sagarrondoarentzako behar den hezetasuna ez da mantentzen. Lurrundu egiten da ura».

Mahairako sagarra ere gutxi dago aurten. «Garai honetarako azoketan hilabete daramagu saltzen eta aurten berriz gaur jarriko dugu lehenengo aldiz postua». Mahai sagarra badu Iradik negu hotzaren beharrik ez duena. «Ez dute horrenbesteko geldialdirik behar. Sagar barrietate bakoitzak zenbateko hotza behar duen jakitea oso interesgarria da. Topaz sagar mota jaketokoa da eta nahiz eta negurik ez egin asko ematen du. Ez dio afektatzen». K

«Nahiz eta sagar urtea ez izan lasaitasunarekin hartzen dut, bertako sagardo nahikoa egongo da datorren urtean»

Zelaia sagardotegiko Oihana Zerainek bertako sagar gutxiago izateak zer suposatzen duen azaldu du. «Lan egiteko era aldatzen da eta barrietate desberdinak erabilia, bertakoa gutxiago, beste era batera lantzen da bodega».

URUMEA SAGARRA

Sagardogileentzako bertako sagar gutxiago egoteak, sagarra kanpotik gehiago ekarri beharra suposatzen du, baina ez hori bakarrik. Zelaia sagardotegiko Oihana Zerainek bertako sagar gutxiago edukitzeak zer suposatuko duen sakonago aztertzen du. «Lan egiteko era aldatu egiten da, logistika aldetik ere. Barrietateak desberdinak dira eta kanpoko sagarrarekin gehiago lan egin behar baduzu beste era batera lantzen duzu bodega».

Bestetik, azkenengo urteetan gero eta euskal sagardoa gehiago egin da eta bertako sagarra erabili da. Orain tokatuko zaigu, urte honetan, nahi beste bertako sagarrarekin egindako sagardo nahi beste ez edukitzea».

Zerain hala ere ez da kezkatzen. «Nik uste ez urtea izan arren eta bertako sagar gutxi egon arren, lasaitasunarekin hartu behar dela, bertako sagardo nahikoa egongo delako. Ez da sagardo faltarik izango». Jatorri Deiturako sagardoan eragina izango du, baina «Euskal Sagardoa egongo da, ez dudarik izan».

doa egongo da, ez dudarik izan».

«Bakanketa egin behar da eta sagasti berriak sagarra ematen hasiko dira»

Hemendik 15 urtera begira Foru Aldundiak, sagardogileek eta Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak sagardo produkzioaren %100a bertako sagarrarekin egitea lortu nahi dute. Hori lortzeko Oihana Zerainek gako batzuk ematen ditu.

«Erronka potoloa da eta sagar ez urtea denean sortzen diren oztopoak gaintzeko aurreko astean Villabonan, Otalarrean, gakoak eman zituzten. Hasteko lantzen ari gara sagasti gehiago izan ditzagun. Ari gara sagastiak sortzen, baina urte batzuk behar dira sagasti horiek sagarra ematen hasi aurretik. Bestetik, oso garrantzitsua da

ekilibrioa lortzea. Hau da, ahalik eta urte orekatuenak izatea lortu behar da. Hori aklareoarekin edo euskeraz bakanketarekin lortzen da. Sagastiak ongi ezagutu behar dira horretarako, ez hain dastrikoak izateko. Teknika hori ongi ezagutu behar da, ikasi egin behar da. Teknikoak hor dabilza sagasti guztietako datuak lortzen, ikusten, zer jorra duen jakiteko. Sagastiei buruz ikasten ari dira eta ongi jakin arte ezin dira herraminta guztiak jarri. Hori da, helburua».

Aurten gainera dena batu da. «Ez urtea eta gainera klimak ez du lagundu. Lehorra izan da».

Sagardogile batzuk Frantziatik egin dute enkargua

«Frantziatik egin dugu sagarren enkargua» diote sagardogile batzuk. Euskal Sagardoa Jatorri

Deiturako sagardoan eragina izango du. «Bertako sagarra gutxitzean, bertako sagarrarekin egindako sagardo gutxiago egiten da».

Produktio berdina egiten bada derriogorrez bertakoarekin gutxiago egiten da eta Jatorri Deituradun sagardo gutxiago dugu sagardogileek».

Urte hau amaitu baino lehen merkaturatu beharko duten sagardo kopurua, aldiz, iazko uztaren laurden bateko soberakinak izango dira. Izan ere, normala izaten da uzta oparo baten ondoren, sobratu egiten diren sagardo botilak saltzea. «Gaur egun gainera sagardoak ongi irauten du». Urte batetik besterako ezberdinasunak nahiko nabarmenak izaten dira, uzta oparoak gaur egun bi urtetik behin ematen baitira. K



Villabonako Otarlarrean egin zuten aurkezpena Jatorri Deiturakoek aurreko astean.

Uzta txikia izango denez azukre baidu altua izango du

Villabonako Otarrea sagasti esperimentalean eman zituzten aurtengo produkzioaren datuak «2 milioi edo 2,25 milioi kilo batzea espero da».

URUMEA SAGARRA

Villabonako Otarrea sagasti esperimentalean eman zuten prentsaurreko batean aurtengo produkzioaren datuak eman zituzten. Bertan, Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako zenbait kidek, sagargilek eta instituzioetako ordezkariak esku hartu zuten. Agerraldian izen deitura horretan hobetsitako 24 sagarrak eman zituzten ezagutzera, onartutako sagar motak 115 dira goraipatuz. Guztira Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako 245 sagargilek egiten dute Euskal Sagardorako sagarra, 450 hektarea ingurutan

«Aurtengo sagar uzta bi milioi ingurukoa izango da, pasa den urtekoaren erdia baino txikiagoa, hain zuzen ere. Jada sagar bilketa abiatu dute Euskadiko hiru lurralde historikoetan barrena eta ondorioztatu ahal izan dutenez, aurtengo bilketa eskas xamarra izango da».

«Ez urtea» deritzona izanda ere, aurtengo uzta klimak eragin nabarmena izan du, negua nahiko epela izan baita, eta udaldi partean euriteak oso eskasak izan baitira. Horren harira, aurten bi milioi eta bi milioi eta laurden sagar kilo inguru batzea estimatzen dute.

Hortaz, uzta txikiagoa izango denez, sagarra «polifenol edo taninoetan ondo hornitutako uzta izango da. Sagarroak azukre baidu altua izango dute, eta horrek sagardoan eragin nabar-

mena izango du. Era berean, aurtengo sagar uzta azukre maila pasa den urtekoarekin alderatuz gero, 11,9 puntu altuagoa izango da».

Sagar motak, zonaldeak, heldutasun puntuak eta sagardogileen gustuek zehazten dute askotan bilketa garaia.

Bertako sagarraren ekoizpena haunditzea helburu

Euskal Sagardoaren barruan aipaturiko 245 sagargileen eta 450 hektareetako sagarra Jatorri Deiturako 48 sagardotegietara joaten da, Euskal Sagardoa ekoizteko. Sagasti hauetan zahar eta berriak daude eta beste 100 hektarea dira datozen urteetan produkzioan sartuko direnak.

Sagasti berri gehien, Gipuzkoako lurraldean jarri da, Foru Aldundiak emandako laguntzapean pean gehienak, eta Bizkaia eta Araban ere bai zerbait. Bide horretan, sagasti berriak jartzen saiatzeko ahalegin eta konpromisoak ere aurrera darrai. Sektorea eta Foru Aldundien eskutik eta sagar sektorea profesionalizatzen jarraitzea ere helburua da, kalitatezko uzta ekilibratuak lortzeko bidean. «Pauso haundiak eman dira azken urteetan Euskal Sagardoa proiektuak bultzata eta datozen urteetan ere ezinbestekoa izango da sagar sektoreak egiten duen bidea, bai kalitatearen alde eta baita geroz eta bertako sagar gehiago izatearen alde ere. Izan

ere, sektoreak eta administrazioak helburu garbi bat zehaztu zuten Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren sorreran: 15 urteren buruan %100 bertako sagar hutsez egitea hemengo sagardo guztia; hau da, Euskal Sagardoa seilupekoa izatea ekoiztuko den sagardo guztia».

Jatorri Deiturako sagar sektorean lau proiektu estrategiko

Bide horretan, sagasti berriak jartzeaz gain, teknikoki garatu beharreko lehentasunezko hiru proiektu daude martxan Jatorri Deiturako sagar sektorean:

«Polinizazioa: bertako sagar motek elkar polinizatzeko duten gaitasuna aztertzen jarraitzea. Horrek sagasti bateko barietate nahasketa nolakoa izatea komeni den esango digu, polinizazio egokia izatea».

«Bakanketa: asko den urteetan sagarra bakantzea komeni da, uzta ekilibratuagoak egiteko eta hemengo orografia eta sagar motetara egokitutako bakanketa sistemak probatzen ari da sektorea».

«Aukeraketa: Bertako base-rietan beti egin den lana izan da, sagar mota bat txertatu nahi bada, mentuak sagarrak egoki eta emaleenari hartzea, barietatea hobetzen joateko. Lanketa hori modu antolatuta eta jarraian egiten jarraitu nahi da, mintegiatarako sagarrak onenetako mentu oinak eman ahal izateko».

«Lurra: Gero eta garrantzia haundiagoa ematen zaio lurra- ren lanketari eta horretan sektorea formatzea ezinbestekoa da uztak ekilibratzeaz gain, kalitatezko sagarra izateko». K



Sagarra sagardotegietan pilatzen da garai hontan jotzeko prest.



Itxialditik irekitze berrira

Eta bapatean itxialdia... Zer da? Zertarako? Norentzat? Denontzat? Noiz arte? Eta ondoren?

URUMEA BABESTUTAKO EDUKIA

Bapatekotasun honetan, buruan hainbat galdera eta erantzun gutxi inguruan, eta are gutxiago nire buruan. Itxiera bikoitza izanaren sentsazioa dut, etxean eta nire gorputzean, kanpotik barrura ixten baita DENA.

Eta DENA hau nola ireki berriro? Barrutik kanpora begiratuz eta irudikatuz. Eguna hasi eta zure barne emozioak, beldurra, frustrazioa, ezjakintasuna, negargura, bakardadea, bai eta alaitasuna, ekiteko gogo... non, nola eta zerrekin lotura bilatu eta bat

egitea izan da idea eta modua.

Nire kasuan, argazkilaria eta sortzaile naizen heinean, irudia eta argazkia izan dira nire lagun. Egunerokotasunean, barrutik hitzekin adierazten ez nuena, irudien bitartez adierazten nuen eta bai, niretzat prozesu terapeutikoa izan da guztiz. Lagungarri eta beharrezkoa, sentitzen eta bizitzen ari nintzena adierazteko modua, nire hizkuntza.

Begiak itxi beharrean, gehiago ireki ditut. Ikuspegi zabalagoa eskaintzen didan arnas sakon baten bitartez, eta begirada enkoadraketa-markoa handitu batetik klik txiki bat eginez, nire mundu berria sortzera iritsi naiz. Mundu berria ni berriro batetatik.

Idoia Telleria Maritxalar
Argazki eta irudien bitartez pertsonekin konektatzen duen argazkilaritza.

www.idophotography.eus
Hernaniko Elkarlan Sorgunea
Ituroloa.eus
Florida Auzoa, 28 - 20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENAN
BABESTUTAKO ATALA
Eziago Poligonoa, 21
Zikuñaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus

Urriza da favorito gaur buruz burukoan zazpigarren txapela irabazteko gose haundia duen Endikaren aurka

Kutxabank Torneoaren finala 16:30etan hasiko da bi nafarren artean. Bederatzigarren finala izango da Urrizarentzat eta Endikaren aurrenekoa. Ligaxkan 30-19 irabazi zuen iruindarrak eta ez du inoiz galdu Endikarekin.

HERNANI ERREMONTEA

Urriza eta Endikak buruz buruko Kutxabank Torneoaren finala jokatu dute gaur, 16:30etatik aurrera, Galarretan. Urrizaren bederatzigarren finala izango da eta Endikaren aurrenekoa. Urrizak sei txapela irabazi ditu eta beraz favorito nagusia da zazpigarren txapela janzteko.

Pasa den urtean aurrelari iruindarrak bere bigarren finala galdu zuen Barrenetxearen aurka, 2015ean San Miguelen aurka lehendabizikoa galdu eta gero. Beraz, pasa den urteko arantza atera nahi du.

Endikak peloten aukeraketan esan zuen gose haundiarekin dagoela bere lehenengo txapela irabazteko eta konfiantzarekin dago.

Bien artean partidu asko jokatu dituzte azken urteetan eta aurrelari iruindarra izan da beti garaile. Bien artean Master Txapelketako final bat ere jokatu dute eta aurtengo buruz burukoaren ligaxkan Urrizak 30-19, erraz, gainditu zuen Endika gaur lau aste. Aurrekari guzti horiekin favorito argia da Urriza, baina ez da fidatzen. Aurreko urtean ere bera zen hautagai nagusia eta ezustekoa egon zen. Gainera, Urrizak esan bezala Endika oso erremontista konpletua da. «Aurrelari bezala jokatu du eta errekurtsio ikaragarriak ditu buruz buru jokatzeko».

Pelota biziak Urrizak, indartsuagoak Endikak

Biak ere gustora geratu ziren pelota aukeraketan, baina «nahi



Endika eta Urriza pasa den asteazkeneko pelota aukeraketan.

den jokoa egiteko asmatzea zaila» dela onartu zuten. «Asteazken goizetik larunbat arratsaldera arte portaera alda daiteke. Buruz burukoan oso garrantzitsua da sakea eta lehen pelotakada horrekin gustura egoteko moduko pelotak bilatzea zen asmoa» adierazi zuen Urrizak.

Urrizaren pelotak biziagoak dira. «Bereak indartsuagoak dira. Atzelaria da eta beste doaiak ditu, aurrelari gisa ere jokatu duen arren».

Endikak modu positiboan baloratu zuen aukeraketa. «Ez zait aukeraketa gustatzen, baina oraingoan gustura geratu

naiz. Finalaurrekoen antzekoak dira. Ez dira biziak eta niretzat ondo moldatzen dira. Bereak ezberdinak dira, pelota biziagoa bilatu du». Lehen finalerako lasai dago oraingoz. «Badakit zer den finalak jokatzeko, eta horrek presioa hobeto eramaten laguntzen du». **K**

Gaur hasiko dute Gipuzkoako Txapelketa, neska nagusiek

Guztira, sei partidu jokatu dituzte bailarako palistek, asteburu honetan.

ASTIGARRAGA-HERNANI PALA

Martxan da Gipuzkoako Txapelketa, maila guztietan. Abiatzen azkenekoak neska nagusiak izan dira, baina gaur ekingo diote haiek. Gainerakoek, aurreko asteburuan jokatu zuten ligaxkako aurreneko partidua.

Horrela, Urumea bailarako 12 bikote ariko dira guztira, eta bederatzigarren partidu izango dituzte asteburu honetan.

Neska nagusietan, hiru bikote ekingo dute debuta gaur. Lehenengo mailan, Hernaniko kiroldegian jokatu du Hernani 1 taldea, arratsaldeko 15:30etan, Su Berri 2ren kontra; eta atsedean hartuko du Hernani 2k, asteburu honetan. Bigarren mailan, berriz, goizeko 10:00etan kiroldegian ariko da Hernani 1 taldea, Su Berriren kontra; eta arratsaldeko 16:00etan Altzon Hernani 2



Hernaniko eta Mundarroko bost bikote ari dira Gipuzkoakoan, neska jubeniletan.

taldea, Intxurreren kontra.

Mutil nagusietan, berriz, aurreneko garaipena bilatuko dute Zurutuza eta Arandia hernaniarrek, 10:00etan kiroldegian, Pagazperen kontra.

Eta neska jubeniletan izango dira, asteburuko beste bi partidua; biak ere, Hernaniko kiroldegian 10:00etan hasiko den jaialdi horretan. Batetik, elkarren kontra ariko dira bi bikote hernaniar: Tolaretxipi eta Barrenetxea, eta Macicior eta Kerejeta. Bi bikoteek lortu zuten garai-

pena, aurreneko jardunaldian. Eta bestetik, Arruti eta Martinez hernaniarrek jokatu dute, Zumaiaren kontra. Aurreneko garaipena bilatuko dute haiek.

Atzo iluntzean jokatu zuten txapelketako bigarrena, bailarako beste hiru bikote: Zugasti eta Arraras astigartarrek, neska jubeniletan; Ramos eta Zubimendi hernaniarrek, mutil nagusien lehenengo mailan; eta Larramendi eta Zubiarrain astigartarrek, mutil nagusien hirugarren mailan. **K**

Maila oneko jaialdia gaur, Hernanin

Ojuel eta Lizeaga ariko dira Intxurreren kontra, eta Urkizu eta Labaka Añorgaren kontra, arratsaldeko 16:30etan hasita.

URUMEA ESKU PELOTA

Partiduz betetako asteburu dute hau, Urumea bailarako esku pelotariak, baina atzo iluntzean jokatu zuten gehienek, dagoeneko. Edonola ere, maila haundiko partidua ikusteko aukera izango da gaur ere, Hernaniko kiroldegiko frontoian, Gipuzkoako Txapelketakoak.

Arratsaldeko 16:30etan hasiko da jaialdia bertan, pala partiduen ondoren; eta Urkizu eta Labaka ariko dira aurreneko nagusien lehenengo mailan, Añorgako Orbegozo eta Olidenen kontra. Segidan, berriz, ohorezko mailako partidua: Ojuelek eta Lizeagak jokatu dute, Intxurrereko Alberdi eta Irazustabarrenaren kontra. Bi bikote hernaniarrek irabazi beharra daukate, aurrekoan galdu ondoren.

Gaur jokatu dute Salabe-

rriak eta Ortiz de Urbinak ere, Tolosaren kontra, 11:30etan Beotibarren. Eta Elgoibarren ariko dira Arizmendi eta Altuna, Lagunaken kontra, 11:00etan.

Bihar, partidu bakarra izango dute hernaniarrek: Iturbek eta Urdangarinek jokatu dute, 11:00etan Sorluzen.

Gipuzkoakoan, atzo jokatu zituzten partidua, gainerako esku pelotari hernaniar eta astigartarrek. Besteak beste, elkarren kontra aritu ziren Lizeaga anai astigartarrak, eta Uitzu eta Etxarri hernaniarrek, jubeniletan. Eta atzo jokatu zuten, nagusien mailako bi bikote astigartarrek ere: Loidik eta Santxezek Villabonan, eta Mujikak eta Gurutzealde Aizarnazabalen.

Mendialdekoan, goizuetarrak Esku pelotari goizuetarrak ere aritu ziren atzokoan. Mendialdeko Buruz Buruko Txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu zuten, herrian bertan, zazpi goizuetarrek: Sagarduik, Salaberriak, Elizegik, O. Legarretak, Alsua eta Garmendiak elkarren kontra, eta A. Legarretak eta Aranberrik ere bai. **K**

Sasoi onean ekingo diote, errepideko azken hilabeteari

Emaitza onak lortu dituzte bailarako txirrindulariek irailean, eta urrian bukatuko dute denboraldia.

URUMEA TXIRRINDULARITZA

Errepideko denboraldia egokitu behar izan dute txirrindulariek ere, pandemiaren eraginez; eta ohi baino beranduago bukatuko dute, kadete, jubenil eta afizionatu mailatan: urriaren amaieran, hain justu. Hortaz, azkeneko hilabetea falta dute, eta sasoi betean ekingo diote, Urumea bailarako ziklistek.

Izan ere, maila ederrean aritu dira, abuztuan berriro lasterketei ekin zietenetik; eta emaitza onak lortu dituzte, irailean zehar. 23 urtez azpikoetan, esaterako, Euskaldun eta Lehendakari Torneoetako hainbat proba jokatu dituzte, eta aurrean ibili dira Ander Amonarriz hernaniarra eta Xabier Mikel Azparren astigartarra. Joan den larunbatean, Oñatiko Proba izan zuten, Lehendakari Torneoko; eta zortzigarren sailkatu zen Amonnarriz, onenen taldean iritsita. Hori baino lehen, irailaren 13an, berriro ere aurreko taldean sartu zen hernaniarra, Seguran, Euskaldun Torneoko San Juan Sari Nagusian. Bederatzigarren izan zen esprintean. Eta Altsasun ere jokatu zen Euskaldun Torneoko proba bat, irailaren 6an. Horretan, podiumean izan zen Azparren, hirugarren sailkatuta.

Azparrenek, gainera, Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketa irabazi zuen joan den igandean, Alegian. 44 segundoren alde atera zion Xabier Isasa bigarrenari, iazko garaipena errepikatzeke. Azkeneko urtea izango du astigartarrak afizionatu mailan, Euskaltel-Euskadi taldearekin sinatu baitu kontratua, datorren denboraldian profesio-



Enekoitz Azparren, joan den larunbatean Seguran. Argazkia: Ander Perez

naletan debuta egiteko.

Euskaldun Torneoko beste proba bat izango dute gaurkoan: Lazkaoko Proba jokatu dute, goizeko 09:30etan Lazkaoko plaza abiatuta. 123 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, eta Orendainera hiru aldiz igo ondoren, Lazkaomendin izango dute helmuga.

Enekoitz Azparren hiru bider podiumean, irailean

Sasoiko dabil Xabier Mikel Azparrenen anaia gaztea ere, Enekoitz, juniorretan: irailean, hiru aldiz izan da podiumean astigartarra. Joan den larunbatean, gainera, garaipena lortu zuen Segurako Sarian, denak atzean utzi eta ia minutu bateko tar-tearekin helmugaratuta.

Igandean, berriz, Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketa aritu zen bera ere, eta hirugarren sailkatu zen juniorretan, Asier Pozo eta Danel Casaisen atzetik. Eta hirugarren izan zen Oñatin ere, irailaren 12an, Mikel Deunaren Sarian. Danel Casais bera eta Unax Iztueta taldekidea izan zituen aurretik, orduan.

Gaurkoan, lasterketa laburra dute juniorrek, Antzuolan. Uzarraga Igoera izango da jokoan, arratsaldeko 16:00etan abiatuta; eta 59 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Deskarga igoko dute probaren aurreneko zatian, eta Uzarraga gainean bukatuko dute lasterketa.

Lehiatzeko oso aukera gutxi dutenak, Gipuzkoan behintzat, emakumezkoak dira. Naia Mangas hernaniarrak, esaterako, Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketa izan du aukera bakarra, eta beste probarik ezean, bertan aritu zen. Zazpigarren sailkatu zen, junior mailan.

Mutil kadeteak ere, lehian

Irailean bi lasterketa izan dituzte, aldiz, mutil kadeteek. Azpeitiako Saria jokatu zuten irailaren 13an, eta bertan aritu ziren bi hernaniar: 19garren sailkatu zen Aner Zilbeti, eta 67garren Unax Urretabizkaia.

Joan den igandean, berriz, Nafarroan aritu ziren biak, Lizarrako Proban. Horretan, 44garren izan zen Urretabizkaia, eta 62garren Zilbeti. **K**

Denontzat Race proba, bihar zortzi

Landaren jokatu da, datorren igandean, obstakulo probaren hirugarren edizioa. Bi maila izango dira: elitea eta herrikoia.

HERNANI OBSTAKULO PROBAK

Uztailaren 25ean bertan behera geratu ondoren, data berria jarri du Hernaniko Denontzat Race obstakulo probak; eta datorren igandean jokatu da, urriaren 4an. Landaren izango da, eguerdiko 12:30etan hasita. 8,5 kilometroko ibilbidea izango da, eta 25 obstakulo baino gehiago gainditu beharko dituzte.

Bi kategoria izango dira: elite mailakoa, eta herrikoia. Aurrenekoan, obstakulo guztiak gainditu beharko dituzte partehartzaileek, edo dagokien zigorra bete. Herrikoian, aldiz, ez dute guztiak gainditzeko obligaziorik izango, baina helburua da denak pasatzen saiatzea.

Partehartzaile guztiak, goizeko 08:30etatik 11:30etara jaso beharko dituzte dortsalak, eta

11:30etan, bilera informatiboa egingo dute. Nabarmendu dute, oso garrantzitsua dela bilerara joatea. Ondoren, 12:30etan izango da irteera.

Izena eman nahi dutenek, Denontzat gimnasioan izango dute aukera. Aforoa mugatua da, eta uztailaren 25erako izena eman zutenei, plaza gorde diete. 39 eurokoa da prezioa.

Hainbat neurri, egoerara egokitzeko

Egungo egoera dela eta, protokoloa ere prestatu dute, bete beharreko hainbat neurriekin. Landaren instalazioetan, kartel, marka eta boluntario ugari egongo dira, jarraibideak emanez. Temperatura ere hartuko diete partehartzaileei, eta eskuak garbitzea eta maskarilla janztea derrigorrezkoa izango da, irteera eman arte. Irteera gunean, metro eta erdiko tartearin egongo dira partehartzaileak. Eta obstakulo bakoitza gainditu aurretik, maskarilla jantzi beharko dute, eta eskuak garbitu. Proba ikus-teko ere izango da aukera, baina mugatua izango da aforoa. **K**

Sorginen Lasterketan 9garren, Hodei Lujanbio

Pandemiaren aurretik bezala, onenen artean ibili zen goizuetarra, lehiara bueltan. Bihar, bailarako 7 korrikalari izango dira Beasainen.

URUMEA LASTERKETAK

Pixkanaka ari dira bueltatzen, mendiko zein errepideko lasterketak ere. Oraingoz, proba gutxi batzuk besterik ez dira, baina Urumea bailarako zenbait korrikalari izan dute aukera, dagoneko, dortsala berriro jartzeko.

Horietako bat da Hodei Lujanbio goizuetarra. Joan den larunbatean bueltatu zen lehiara, Bizkaian, Atxondoko Sorginen Lasterketan. Eta pandemiaren aurretik bezala, onenen artean ibili zen berriro ere. 9garren postuan sailkatu zen, ia 18 kilometroko ibilbidea 1:45:05 denboran

osatuta; Gontzal Murgoitio elorriotarrak, probaren irabazleak, 1:37:52 egin zuen. Lujanbiok aurretik izan zituen asko, Euskal Selektzio korrikalariak dira.

Josetxo Imaz Memorialean bihar, bost hernaniar eta bi astigartar

Errepideko korrikalariak, berriz, bihar dute aukera Beasainen, Josetxo Imaz Memorialean. Gipuzkoako aurreneko lasterketa izango da, eta Urumea bailarako zazpi korrikalari ariko dira bertan: Antxon Korta eta Gorka Alvarez astigartarrak; eta Ania Arregi, Aitzol Arregi, Alexander Iturralde, Oscar Fernandez eta Ekain Nogueira hernaniarrak.

Goizeko 10:30etan abiatuko dira korrikalariak, Beasaindik, eta 10 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, Lazkaora joanda aurrena, eta Ordiziara ondoren, Beasainera bueltatzeko. **K**

EGURALDIA

GAUR

Berdintsu jarraituko du. Etengabe egingo du euria, eta zaparradak indartu egingo dira iluntzetik aurrera. Ipar-mendebaldeko haizea bizi ibiliko da. Temperatura kokka bat gora, baina frexko. **Min.11° / Max.16°**

BIHAR

Hobera egingo du bihar, pixka bat, eguerditik aurrera. Goizean euri asko egingo du oraindik ere. Arratsaldean ateri eutsiko dio, baina lainotuta jarraituko du. Haizeak indarra galduko du. **Min.13° / Max.16°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: Tanco Idiazabal, 39 (Urnieta) **943 550942** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353

IRAGARKI MERKEAK

Egurrezko espalderra salgai. Neurriak 2,00 x 2,10 metro. Egoera oso onean.
Deitu: 652 707 215.

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



'Schitt's Creek' komedia, situazio eta 'gag' gero eta eroagoak dituen telesail zoragarria

Merezi du Emmy Sarietako irabazleei begiratu bat ematea; bereziki, horietako hiruri: 'Schitt's Creek', 'Succession' eta 'Watchmen' telesailak.



AITOR CARACCILO

URUMEA TELESAIL ETAN ADI(K)TUA

Kurtso berriarekin bueltatzen gara asko egunerokotasunera, rutinara. Baditu honek bere alde on eta txarrak, zeinekin hitz egiten duzun arabera. Niri, adibidez, udazkenara iritsi berri garen hau, hotza buztana erakusten hasi den momentu gazi-gozoa, une aproposa iruditzen zait manta hartu, udaran zehar terraza eta hainbat planekin ahaztua genuen sofara bueltatu eta mundu katodikoak dakartzigun proposamen berri nahiz zaharrei berriro ere heltzeko.

Gure bizitzako arlo guztietan bezala, pandemiak ere eragin handia izan du telesailen munduan. Ekoizpen eta sorkuntza prozesuak nabarmen kaltetuak izan diren heinean, publikora iritsi den produkzio kantitatea, biziki murriztu da aurrean, eta hartara ere, kate edo interneteko zerbitzuak, programazioa birmoldatu beharrean aurkitu dira, ondorioz gure telesail asko kantzelatu, atzeratu edota denboraldi murriztuekin geratu direlarik. Hala ere, baziren perlatxo bat edo beste gordeta zituztenak, eta modu honetan, izan dira udaran nahiz hilabete honetan, kalitatezko gauza dextente: *Made in Italy* (SundanceTV) freskoa, *I may destroy you* (BBC, HBO) potentzia eta ikusi

beharrekoa, *Perry Mason* (HBO) bikaina, *Hanna T2* (Amazon Prime Video), *Brave New World* (Peacock, Starzplay) arraroa, *Caminantes* (OrangeTV), *L'effondrement* (Filmin) gogorra, *Ramy T2* (Starzplay), *Little Birds* (Sky Atlantic) Anais Nin idazlearen istorio laburren adaptazio delirantea, *Ted Lasso* (Apple TV+) komedia borobila, *Veneno* (Atresplayer premium) historiaren kapitulu berriak, *Lovecraft country* (HBO) txundigarria, *Two weeks to live* (Sky1) zo(ro)ragarria, *Raised by wolves* (HBO), *The boys T2* (Amazon Prime Video) ganberroa, *Skam T4* (Movistar+), *Escenario 0* (HBO) ederra, *The third day* (HBO) hipnotikoa, *We are who we are* (HBO) Luca Guadagninoren sorpresa berria, *Vernon Subutex* (Filmin) Virginie Despentes idazlearen adaptazio paregabea, *No mans land* (Hulu), *Deutschland 83 T3* (SundanceTV), *Fargo T4* (FX, HBO) edota *The Comedey rule* (Showtime, Movistar+).

Ikusten duzuen bezala, badago soberan bakoitzaren gustuak edo jakin mina asetzeko. Hala ere, zerrenda luze honetatik kanpo utzi dut, askorentzat hila-bete honetako estreinaldi, esan dezagun, indartsuena. Bihar iritsiko zaigun *Patria* (HBO) telesailari buruz ari naiz, bai. Eta honi buruz ere ez naiz luze arituko, hurrengo asteetan gori-gorigure ahotan ibiliko den telesaila izango da eta. Denbora soberan izango dugu hau ikusi, aztertu eta modu askotan diseinatu eta kritikatzeko. Bukatzen denean, orduan iritzirik hemen emango dudana, ikusiko dugu.

Modu berean, izan da hila-bete honetan telebistaren munduko beste gertaera garrantzitsu bat: Emmy Sarien banaketa.



Komediaren arloko sari nagusia guztiak irabazi zituen 'Schitt's Creek' telesailak, Emmy Sarietan.

Normalean ekainaren hasieran izan ohi den zeremonia atzeratu egin zuten, beste hainbat gauza bezala, eta lehengo asteburuan ospatu ziren. Bertako palmarsa ikusita, irabazle nagusienei begiradaxo bat botatzea ere aproposa iruditzen zait, norbaitek ezagutzen ez baditu aukera bat emateko.

Komediaren arloarekin hasiko gara, *Schitt's Creek* (Movistar+) telesailak hito bat lortu baitzuen kategoria honetako sari nagusi guztiak irabazita: komedia nagusiaren saria, gidoia, zuzendaritza, eta bere lau aktore nagusiek beren arloetan. Kanadiarra den telesail honek, bere seigarren eta azken denboraldian izan du errekonozimendu handi hau. Modu txikian hasi zen komedia, AEBetako Netflix plataforman ospea hartu eta handitzen joan zen, juxtu bukatu den urtean, merezitako brotze final honekin amaitu dutelarik. Bertan, familia aberats batek, dena galdu ostean, bizitzera joan beharko duten herri txiki bateko bizimoduak kontatuko digu. Istorioa aski ezaguna bada ere, imagina ezazue *Herri Txiki*, *Infernu Handi* eta *Bel-Airko*

Printzearen nahasketa berezia, 20 minutu pasatxoko kapitulu errazak eta situazio eta 'gag' gero eta eroagoak dituen. Gehiago behar?

Dramaren arloan, jaun eta jabe izan dugu *Succession* (HBO) telesail paregabea. Telesail nagusia, zuzendaritza, gidoia eta aktore zerrendaren sariak eskuratu zituen, besteak beste. Jesse Armstrongek sortutako telesailak, Roy familiaren bizitza kontatzen digu. Konglomeratu enpresarial baten buru den familia honen istorioak, Shakespearek idatzitako edozein libururen trama atzean utzi lezake. Familia barruan dauden liskar anitzak, negozio munduan duten gerra irekia, gezurrak, ustelkeria... Dena modu bikain eta orekatuan ekarria. Gehiagoren gogoarekin uzten zaituen telesaila da; aukera bat eman, eta kapitulu gutxiren buruan harapatuko zaituena.

Telesail laburretan, berriz, *Watchmen* (HBO) izan genuen garaile. Telesail nagusiaren sariarekin batera, bere protagonista den Regina King aktoreak jasotakoa nabarmendu beharra dago, egindako lan bikainagatik.

Beste hainbat kategoriatan ere saritua izan bazen ere, izen bereko komikian oinarritutako munduan kokatzen den istorio solte honek izan zuen puntu indartsu nagusienetako bat da King, Tulsa hiriko 1921an izandako sarraskian duen bere kontakizunaren oinarri nagusia dugularik. Tematika arraziala, poliziaren eta estatuaren barruan dagoen ustelkeria eta xenofobia oinarri hartuta, eta superheroi kutsua erabiltzen du aitzakia gisa, sozialki izkutuan dauden arazo estrukturalak palestrara aterata eta aipatzeko.

Hiru proposamen, beste hainbeste saridun telesail, dokumental, aktore, musikari, sortzaile, langile eta sektorearen artean. Agian aipamen txiki bat *El silencio de los otros* dokumentalari ere, Almudena Carracedo eta Robert Bahar ekoizleek frankismoaren biktimei buruz eginikoa, sari bikoitza eraman baitzuen.

Dena den, beti bezala aukera ugari, momentu eta umore bakoitzerako. Zailena beti (niri gertatzen zaidan bezala), bat aukeratzea. Ea zuei errazagoa egiten zaizuen! K